



GURASO ELKARTEEN
HEZKUNTZA-JARDUERA
ONEN 3. LEHIAKETA

3er CONCURSO DE
BUENAS PRÁCTICAS
EDUCATIVAS DE AMPAs

3.EDIZIOA

ehige
gurasoen elkarte

1. SARIA / PREMIO

“Urtantak. Poliki-poliki blai egiten”

Kalamua Guraso Elkarte (Elgoibar LHI)

Kalamua Guraso Elkarteak "Ur tantak" izeneko egitasmoa jarri du martxan sentsibilizazioa eta irakasleen eta ikasleen artean garapen bio-psiko-sozial osasuntsua sustatzeko asmoz euren gure seme-alabentzat.

Gai hauek landu dituzte besteak beste: genero berdintasuna, integrazioa (integrazioa eta minusbaliotasunak dituzten haurrak), elkarlana-lehiakortasuna, umeen arteko tratu txarrak, ekimena-autonomia vs. dependentzia-geldotasuna, bizitzarako ohitura onuragarriak, ingurumenaren zaintza.

“SENSIBILIZAZIOA LANDU NAHIDU EGITASMO HONEK”

Hau guztia, zertarako?

- Familia barruan balore, jarrera eta jokabide desberdinak lantzeko erremintak eskaintzeko.
- Hausnarketa sustatzeko eta guraso eta seme-alaben artean eztabaidarako gai desberdinak proposatzeko.
- Herri Eskolako taldearen parte izatearren sentimendua indartzeko.

Nola garatu zuten?

- Eskolako familia guztiekin jarri ziren harremanetan eskutitz baten bitartez. Helbide elektronikoko helbideak eskatu zizkieten, euren materiala bidali ahal izateko.
- Bitartean, hainbat material jaso eta garatuz joan ziren: ipuinak, jolasak, jarraibideak, testu liburuak, youtube-ko bideoak...
- Azkenik, blog bat argitaratu zuten (<http://kalamuaurtantak.wordpress.com/>) familiei bidalitako hainbat material argitaratzeko.

CAS

Kalamua Guraso Elkarte ha puesto en marcha el proyecto "Ur tantak" con el objetivo de desarrollar actividades relacionadas con la sensibilización y fomentar un desarrollo bio-psico-social sano de sus hijos e hijas entre las familias, alumnado y profesorado.

Han trabajado, entre otros, los siguientes temas: igualdad de género, integración (integración y aulas y alumnos con minusvalías), cooperación-competitividad, malos tratos entre alumnas/os, iniciativa-autonomía vs. dependencia-pasividad, hábitos sanos para la vida, cuidado del medio ambiente.

Y todo esto ¿para qué?

- Para ofrecer diferentes herramientas para trabajar valores, comportamientos y conductas dentro de la familia.
- Para fomentar la reflexión y proponer diferentes temas de debate entre padres y madres y alumnado.
- Para reforzar el sentimiento de pertenencia a la Herri Eskola.



¿Y cómo lo han hecho?

- Poniéndose en contacto con todas las familias del centro a través de una carta y solicitándoles su dirección de correo electrónico para poder enviarles material.
- Mientras tanto, fueron recopilando y preparando material: cuentos, juegos, pausas, textos de libros, vídeos de youtube..
- Además, han publicado un blog con el material enviado a las familias: <http://kalamuauertantak.wordpress.com>

Irakurri esperientzia hau osorik zure mugikor edo tablet-eán. Lee esta experiencia en su totalidad en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: kalamua@googlegroups.com
Web: <http://kalamuauertantak.wordpress.com/>
Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /
Para leer ésta y más experiencias en su totalidad
www.ehige.org/praktikaonak



2. SARIA / PREMIO

“Denok goaz itsasontzi berean”

Kanpandegi Guraso Elkarte (Orixe ikastola, Donostia)

Kanpandegi Guraso Elkarteak 2011-2012 ikasturtean garatu zuen proiektua azken urteetan eskolako hainbat eragilek buruan zuten behar batetik sortu zen: ikastolaren irudia eta logoa aldatzeko beharretik. Garai eta baliabide berrietara egokitzeko, ezinbestekoa zen irudi berria, baina irudi aldaketa hori baliatu nahi zuten elkarlana, batasuna, parte hartzea eta lankidetzaz bezalako baloreak bultzatu eta sustatzeko. Aldaketa, besterik gabe, egun batetik bestera egin beharrean, guztien artean landu, garatu eta gauzatu nahi zuten.

“IKASTETXEKO LOGOA BERRITU DUTE”

Beraz, ikastola bere ingurunean ezin hobeto txertatzen duen paperezko itsasontzi bat irudi harturik, ikasturte osoko bidaiari ekin zioten: eskolako gurasoak izan ziren logoa diseinatu zutenak, Guraso Elkartetik sortu ziren hurrek geletan gaiaren inguruan lantzeko moduko ideia ugari, irakasleek gelaz gelako proiektuak

lantzeko interes handia erakutsi zuten, eta hurrek gogoz parte hartu zuten bidaiari. Hezkuntza Komunitate guztia inplikatzeko lortu zuten horrela.

Kurtso hasieran ideia hutsa zena, ikasturte amaierako jaialdian, logo berriaren erabateko arrakastarekin iritsi zen portuara. Bidean, eskolako inprimakiak eta aurkezpen txartelak aldatu ziren, web gunea estreinatu zuten irudi berriekin eta ordurako abian zen blogaren ere irudia aldatu zuten, eta, nola ez, logoaren eta haren esanahiaren inguruan, lan ederra egin zen geletan.

CAS

Este proyecto desarrollado en 2011-2012 surgió de la necesidad detectada por los agentes educativos de la escuela en los últimos años: la necesidad de cambiar la imagen y el logo. Esta nueva imagen era imprescindible para adecuarse a los nuevos tiempos, pero querían aprovechar ese proceso para promover valores como el trabajo en equipo, al unidad, la participación y la colaboración. En vez de realizar el cambio de un día para otro, querían trabajarlo entre todas y todos.

Así, tomando como punto de partida la imagen de un barco que inserta perfectamente al centro en su entorno, empezaron un viaje que duró todo un curso: los padres y madres del centro diseñaron la imagen, desde la AMPA surgieron ideas para trabajar en las aulas, el profesorado mostró gran interés para trabajarlo en las aulas y las y los alumnos participaron con muchas ganas en la experiencia. Así, lograron implicar a toda la comunidad educativa.



“TODO EL CENTRO HA PARTICIPADO EN LA CREACIÓN DEL LOGO”

Lo que a principios de curso era sólo una idea, en la fiesta de final de curso se convirtió en el éxito total del nuevo logo. Antes, se cambiaron las hojas del centro y las tarjetas de presentación, así como la web y el blog. Y como no, se trabajó el logo y su significado en las aulas.

Irakurri
esperientzia hau
osorik zure mugikor
edo tablet-eán.
Lee esta experiencia
en su totalidad
en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: orixegurasoak@gmail.com
Web: www.orixeikastoladonostia.hezkuntza.net
Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /
Para leer ésta y más experiencias en su totalidad
www.ehige.org/praktikaonak



3. SARIA / PREMIO

Oihan Guraso Elkarte

Arantzabela LHI (Vitoria-Gasteiz)

Arantzabela ikastolako guraso elkartetik beti pentsatu izan dute lan osagarri bat egiten zutela eta saiatu behar zirela ikastetxean egiten zen lana osatzen edo borbiltzen. Hau da, biek, bai ikastolak eta bai guraso elkarteak, helburu berberak konpartitu behar zituztela euren semealaben heziketarako.

Guraso Elkarte honetan betidanik batzordetan lan egin dute eta hoietan hezikuntzako alde ezberdinak lantzen dituzte: jantokia, eskolaz kanpoko ekintzak, mendi irteerak, liburuaren astea, ikastolako jaia eta abar.

**“GARRANTZI
HANDIA
EMATEN DIOTE
IKASTETXEKO
ELKARLANARI”**

Urtero gela bakoitzetik ordezkari bi aurkezten dira eta hoietatik batzordeko arduradunak eta juntakideak ateratzen dira. Behintzat hilabetean behin elkartzen dira eta bilera guztiak irekiak dira, edozeinek parte hartu baitezake.

Euren helburu garrantzitsuenak hauek dira: euskara erabiltzea eremu guztietan, kirola bultzatzea ezlehiakortasunetik abiatuta, sormena lantzea, elkartasunean eta desberdinak direnen ezagutzan haztea.

CAS

En la AMPA de Arantzabela ikastola siempre han pensado que realizan una labor complementaria en el centro y que deben tratar de completar el trabajo que se realiza en el centro. Es decir que la ikastola y la AMPA deben compartir los mismos objetivos para la mejora de la educación de sus hijas e hijos.

En esta AMPA siempre han trabajado en comisiones, en las que tratan diferentes aspectos educativos: comedor, actividades extraescolares, salidas al monte, semana del libro, la jaia, etc.

En cada curso se eligen dos personas delegadas de aula, entre los que se eligen las personas responsables de las comisiones y de la junta. Se reúnen una vez al mes, al menos y todas sus reuniones son abiertas, ya que cualquiera puede participar en ellas.

**“LA ESCUELA Y LA
AMPA DEBEN
COMPARTIR LOS
MISMOS
OBJETIVOS”**



Estos son sus objetivos principales: utilizar el euskara en todos los ámbitos, impulsar el deporte desde la no competitividad, desarrollar la imaginación, y educar en la cooperación y en el conocimiento de la diversidad.

Irakurri
esperientzia hau
osorik zure mugikor
edo tablet-eán.
Lee esta experiencia
en su totalidad
en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: oihangurasoelkarte.blogspot.com

Web: www.arantzabelaikastola.com

Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /

Para leer ésta y más experiencias en su totalidad

www.ehige.org/praktikaonak



SARI BEREZIA/ PREMIO ESPECIAL

"Café con familias. Elkarbizitzarako elkargunea"

Minas BHI (Barakaldo)

Egitasmo honen helburua zera da: gurasoek eta irakasleek osatutako eztabaida-gune misto bat osatzea ikastetxeko elkarbizitza hobetu eta estamentu guztien arteko elkarlana sustatzeko asmoz.

Hauek osatzen dute taldea: DBHko 4-mailetakoko 15-20 gurasok, lau irakaslek (elkarbizitzarako arduraduna, orientatzailea, ikasketaburua, zuzendaria) eta Barakaldoko udaleko eskolaz kanpoko ekintzen arduraduna. Ikasturte bakoitzaren hasieran 1. mailako guraso berri guztiak gonbidatzen dira.

"EZTABAIDA-GUNE MISTOA OSATU DUTE"

Hilabete bakoitzean ordu eta erdiko bileraren egiten da (ostegunetan 10:00etatik 11:30etara). Bilera bakoitzean gai zehatz bat lantzen da (liburutegia, sexualitatea, hizkuntzaren normalkuntza, sare-sozialak...) eta gai-ordena zehazten du ikastetxeko elkarbizitza lan-taldeak. Batzutan kanpoko adituak gonbidatzen dituzte bileretara. Hiru aldiz ikasturtean, Elkarbizitzarako Behatokian parte hartzen dute guraso batzuek.

Elkarbizitza lantzeko lan-taldea

Eztabaida-gunean parte hartzen duten lau irakasleek eta Udaletxeko ordezkariak parte hartzen dute honetan. Ostegunero biltzen dira bi orduz egin behar hauekin: eztabaida-gunearen jarraipena, Ikasle Laguntzailea programaren jarraipena, eskolako giroaren jarraipena (arazoak erlazioetan, abusu eta arrisku jarrerak...) eta jardueren antolaketa.

"ESTE PROYECTO QUIERE MEJORAR LA CONVIVENCIA Y EL TRABAJO EN COMUN"

CAS

El objetivo de esta experiencia es el siguiente: constituir un foro de debate mixto formado por padres/madres y profesorado para mejorar la convivencia y fomentar el trabajo en común.

El foro está formado por: 15-20 padres / madres de 4º de la ESO, cuatro profesoras o profesores (responsable de convivencia, orientador/a, jefa/e de estudios, director/a) y la persona responsable de las actividades extraescolares municipales. A principios de cada curso se invita a todos los padres/madres nuevos de primer curso. Una vez al mes se realiza una reunión de una hora y media de duración (jueves de 10:00 a 11:30). En cada reunión se trata un tema específico (biblioteca, sexualidad, normalización lingüística, redes sociales...) y el grupo de trabajo para la convivencia del centro se encarga de preparar el orden del día. También invitan ocasionalmente a personas expertas. Algunos padres / madres participan en el Observatorio de la Convivencia tres veces por curso.



Grupo de trabajo para la convivencia

Este grupo está formado por las/os cuatro profesores que participan en el foro de debate y el responsable municipal de actividades extraescolares. Se reúnen todos los jueves durante dos horas con estos quehaceres: seguimiento del foro, seguimiento del programa Ikasle Laguntzailea, seguimiento del clima escolar (dificultades en las relaciones, actitudes de abuso o riesgo...) y organización de actividades.

Irakurri
esperientzia hau
osorik zure mugikor
edo tablet-ean.
Lee esta experiencia
en su totalidad
en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: administracion@iesminas.net

Web: www.iesminas.net

Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /

Para leer ésta y más experiencias en su totalidad

www.ehige.org/praktikaonak



ACCESITA/ ACCESIT

“Markak hausten, euskara indartzen”

Burunzpe Guraso Elkarte (Sasoe-
ta-Zumaburu LHI, Lasarte)

Guraso Elkarte honek plangintza sakon bat martxan jarri du 2012-2013 ikasturtean zehar, eskolako umeen euskararen erabilpena sustatzeko asmoarekin. Plangintza ulertzeko, lehenik eta behin Lasarte-Oriako errealitatea ulertu beharra dago, XX. mendeko erdialdean inmigratio prozesu handia jasan baitzuen. Euskal hiztunak gutxiago direnez, euskararen presentzia kalean gutxitua da. Horretaz gain Lasarte-Oriak bi eskola publiko ditu, eta bakoitzaren historia dela eta, euskal-hiztun populazioak beste eskolara jotzen du. Hala eta guztiz ere, eskolaren lehentasunezko helburua da euskararen garapena umeen artean eta aurrera pauso nabarmenak ematen ari dira. Zentzu, berean guraso elkartetik urratsak eman nahi dituzte, eskolako zuzendaritzak ireki duen bidea indartu asmoz.

“EUSKARAREN ERABILPENA SUSTATU NAHI DA”

Hori horrela, hiru esparru antzeman dituzte lan egiteko: etxea, eskola eta herria. Aldi berean, helburu zehatz batzuk finkatu dira. Lehenik eta behin, eskolan

dituzten guraso euskaldunak mantentzea, bestalde eskolara guraso euskaldun berriak erakartzea eta azkenik, eskolako umeen euskararen erabiltze-maila hobetzea. Eta horretarako ekintza ugari jarri dituzte martxan, hala nola, gurasoen artean euskararekiko jarrera positiboak izatearen garrantzia zabaltzea, Lasarte-Oriako Euskararen Maratoian parte hartze aktiboa izatea, euskararen egunean eta eskolako jaialdian ekintza bereziak antolatzea, Korrika eta Euskeraz Bizi Nahi Dut ekimenetan parte-hartze sendoa bultzatzea, matrikulazio garairako bideo eta aurkezpen zehatzak prestatzea, facebook-en perfila sortu eta aktiboak izatea mezuak zabaltzen, eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilerarako irizpideak finkatzea eta nola ez, eskolako zuzendaritzari babes osoa ematea euskararen erabileraren helburua lortzeko ematen ari den pausu garrantzitsuen aurrean. Eta 2013-2014 urterako ideia berriak dituzte jadanik eta lanean jarraitzeko gogotsu jarraitzen dute.

CAS

La AMPA de este centro puso en marcha en el curso 2012-2013 una planificación exhaustiva para fomentar el uso del euskara entre el alumnado. Para entenderlo, es necesario explicar que este municipio afrontó un importante proceso migratorio a mediados del siglo XX. Como hay menos vasco parlantes que en otros municipios, la presencia del euskara es menor en las calles. Además, Lasarte-Oria cuenta con dos centros públicos y debido a su trayectoria, la población vasco parlante elige el otro centro. A pesar de todo, el euskara es un

objetivo prioritario de esta escuela y se están dando pasos importantes. En ese mismo sentido quieren dar pasos desde la AMPA, con el objetivo de reforzar el trabajo realizado desde la dirección.

“SE VA A TRABAJAR EN TRES ÁMBITOS: HOGAR, ESCUELA Y MUNICIPIO”

Así, han detectado tres ámbitos de trabajo: el hogar, la escuela y el municipio. A su vez, han establecido unos objetivos. El primero de todos es mantener a los padres/madres euskaldunes que ya están en el centro, atraer a nuevos padres y madres euskaldunes y mejorar la utilización del euskara dentro del alumnado. Y para lograrlo, han puesto en marcha muchas actividades: difundir la importancia de fomentar actitudes positivas hacia el euskara entre las familias, una participación activa en el Euskararen Maratoria de Lasarte-Oria, organizar actividades especiales tanto en la fiesta de fin de curso como en el día del euskara, preparar vídeos y presentaciones para la campaña de matriculación, crear un perfil activo en Facebook, incluir criterios sobre la utilización del euskara en las actividades extraescolares y, como no, apoyar a la dirección en su labor. Ya tienen nuevas ideas para este curso 2013-2014, y sobre todo muchas ganas de seguir trabajando.

Irakurri esperientzia hau osorik zure mugikorr edo tablet-eán. Lee esta experiencia en su totalidad en tu móvil o tablet.




Harremana / contacto: info@burunzpe.net

Web: www.burunzpe.net

Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /

Para leer ésta y más experiencias en su totalidad

www.ehige.org/praktikaonak



ACCESITA/ ACCESIT

“Zabalarra: eskola publiko baten bihotza”

Zabalarra Bitaño Guraso Elkarte
(Zabalarra LHI, Durango)

Lehiaketara aurkeztu duten egitasmoaren helburua azken bi ikasturtean IGEan landu den gai garrantzitsu bat da: komunikazio on bat sustatzea ikastetxea osatzen duten kide guztiekin, ikastetxearen engranajearen parte hartu eta behin-behineko egitasmoetatik haratago doan balio erantsia eskainiz.

IGetik, familien parte-hartzea eta koordinazioa sustatzen dute estamentu eta lan-talde guztietan (jantokiko batzordea, zuzendaritza, hainbat jarduera, Elkarbizitzaren Behatokia, Ikastetxeko Proiektuaren erredakzioa, eta abar).

Taldeko lanaz gozatzen dute etengabe ikasten dutelako eztabaidaren bidez, iritzi desberdinen bidez adostasuna bilatzen.

Handitu egin da gurasoen parte-hartzea eta, baita parte-hartzea hobetzen duten eskolaz-kanpoko ekintzen kalitatea ere (Oinez busa, familien arteko komunikazioa, blog, RSS...)

Hainbat proiektu daude martxan eskolan eta horiek etengabeko lana eta parte-hartzea eskatzen dute.

Ezagutzen dituzte ikastetxearen mugak, baina baita ere abantzailak: tamaina, gertutasuna, ikaslegoa, irakaslego egon-

korra, ikasturte bakoitzeko ikasle berriek ekartzen dioten aberastasuna, eta familien inplikazioa, hain garrantzitsua eskola oinarritik sortzen ari direnean.

Zabalarrako IGETik beti esaten dute eskola publiko txikia daukatela, gertukoa, polita eta bertan parte hartzen duten guztiak beharrezko sentitzen direnak, guztiek dutelako zer eman.

CAS

La experiencia presentada pone en valor el aspecto que más se ha trabajado desde la AMPA estos últimos dos cursos y por el que han apostado activamente: el de fomentar una buena comunicación entre todas las partes que componen la escuela, participando activamente en el engranaje de la misma y aportando un valor añadido que va más allá de la mera participación cuantitativa en proyectos o actividades concretas.

Desde la AMPA animan y coordinan la participación de las familias en todos los estamentos y equipos de trabajo (comisión del comedor, dirección, diversas actividades, observatorio de Convivencia, la redacción del PEC, etc.

Disfrutan del trabajo en grupo como un aprendizaje continuo para todas/os, debatiendo, escuchando, exponiendo, argumentando y llegando a consensos entre personas muy distintas que realizan una aportación voluntaria a la escuela.

La participación e implicación de madres y padres ha aumentado, y por ende, la oferta de actividades y proyectos que mejoran la participación en la escuela (Oinez busa, comunicación entre las familias, blog, RRSS...)



Toman parte activa en el proceso de cambio continuo de una escuela con muchos proyectos abiertos, que requieren un trabajo constante y comprometido por parte de todas las personas que la componen.

Son conscientes de las limitaciones de nuestra escuela, pero también de las posibilidades que ofrece por el tamaño, la cercanía, el alumnado, el profesorado estable, la riqueza que aportan las nuevas incorporaciones de cada curso y la implicación de las familias, que es muy necesaria cuando se está creando una escuela desde la base.

Desde la AMPA de Zabalarra siempre dicen que tienen una escuela pública pequeña, cercana, bonita y en la que todas las personas que participan se sienten necesarias.... Porque todas tienen mucho que aportar!

Irakurri
esperientzia hau
osorik zure mugikor
edo tablet-ean.
Lee esta experiencia
en su totalidad
en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: zabalarra@gmail.com

Web: zabalarra.wordpress.com

Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /

Para leer ésta y más experiencias en su totalidad

www.ehige.org/praktikaonak



ACCESITA/ ACCESIT

“Zeraingo haurren baratza ekologikoa”

Basarte Guraso Elkarte
(Zerain LHI)

Haur, guraso, irakasle, bolondres eta abarren artean Zeraingo haurren Baratza Ekologikoa jarri zuten martxan 2011-2012 ikasturtean eta 2012-2013 urtean jarraipena eman diote. Proiektu honen ardatz nagusia hurrekin landuriko baratza bat sortzea da. Baina baratza oinarri hartuta hainbat helburu planteatu zituzten: hurrek baratzaren sorrerako prozesu guztian parte hartzea (lurra lantzetik, fruituak jaso artekoa), barazetik jasotako barazki eta fruituak umeei beraiek dastatzea, hurrekin Elikadura heziketa lantzea (elikadura ekologikoa sustatzea), auzo lana sustatzea, herriko haur eta edadetuen arteko harremana sortzea (helduen eskutik ikastea eta galtzorian dauden hitzak berreskuratzea) eta, azkenik, guraso, haur, irakasle, udaletxe eta herritar ororen arteko elkarlana bultzatzea.

**“IKASTETXE,
UDALETXE, ETA
HERRITARREN
ARTEKO
ELKARLANA
BULTZATU DA”**

Udaletxearen laguntza izan dute proiekturako (lur saila, tresneria gordetzeko lokala, ureztatzeko depositua eta haren mantentze-lanean ardurak), baita baratzaren berri herrian gehien dakitenena eta adineko jende eta bolondresena ere. Proiektuaren koordinazio lana Guraso Elkartek egiten du eta baratzaren lantzea eskola orduetan zein orduetatik kanpo egiten da. Proiektu hau gauzatzeko aurreikusten ziren gastu guztiak ordaintzeko ere laguntza eskaria luzatu zioten Goimen lurraldeko landa garapen agentziari eskolaren bitartez.

Ekintza hauek egin dituzte, besteak beste: baratzaren sorrera aurreko prestaketak, baratza lantzea-zaintza, heziketako ekintzak (ferietan parte hartu, laborantza munduko hiztegia osatu Zeraingo pertsona helduen eskutik...)

“EL ALUMNADO PARTICIPA EN TODO EL PROCESO”

CAS

Con la participación de alumnado, padres y madres y voluntariado, en el curso 2011-2012 se puso en marcha el huerto ecológico de los niños y niñas de Zerain. El eje central de este proyecto ha sido crear un huerto cultivado por el alumnado del centro. Además, se plantearon varios objetivos: la participación de todos los niños y niñas en la creación del huerto (desde cultivar la tierra hasta recoger el fruto, y que los niños y niñas recabaran conocimientos relacionados con el huerto), que los niños y niñas degustaran las verduras y frutas recogidas en el huerto, trabajar la educa-



ción alimentaria (fomentar la agricultura ecológica), fomentar el "auzo lana", fomentar las relaciones entre los niños y niñas y la población adulta (aprender de la mano de las personas mayores y recuperar palabras en vías de extinción), y por último, fomentar el trabajo en común entre familias, niñas y niños, profesorado, ayuntamiento y toda la población.

Para ello han contado con la colaboración del Ayuntamiento (terreno, local para guardar las herramientas, depósito para el regdío y su mantenimiento), así como de las personas que más saben del tema a nivel local. La AMPA se ha encargado de coordinar el proyecto y los trabajos del huerto se realizan tanto en horario escolar como extraescolar. Han contado así mismo con una subvención de Gozamen, agencia para el desarrollo rural.

Han realizado, entre otras, las siguientes actividades: la preparación previa del huerto, cuidado y cultivo, actividades formativas (participación en ferias, realización de un diccionario sobre agricultura con la ayuda de personas adultas, etc.)

Irakurri
esperientzia hau
osorik zure mugikor
edo tablet-eán.
Lee esta experiencia
en su totalidad
en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: zerain@eskolatxikiak.org
Web: www.eskolatxikiak.org/orriak/esk_zerain.html
Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /
Para leer ésta y más experiencias en su totalidad
www.ehige.org/praktikaonak



ACCESITA/ ACCESIT

"Elikadura osasuntsua gure eskolan"

Allende Salazar Guraso Elkarte
(Allende Salazar LHI, Gernika)

Eskolako umeen elikadura hobetzeko asmoz "Elikadura osasuntsua gure eskolan" izeneko egitasmoa jarri dute mar txan Gernikako Allende Salazar eskolan. Jantoki batzordearen bidez pausuk ematea erabaki zuten, urratsez urrats aurrera egin ahal izateko plangintza zehatz bat eginez.

Helburu hauek ditu egitasmoak: jantoki-ko egoera hobetzea (barne funtzionamendua ezagutuz eta hobetuz, eta aliatuen informazio iturriak erabiliz eta hobetuz), haur eta lehen hezkuntzako umeen hamaiketako ohiturak hobetzea, eta elikadura osasuntsuaren arloan familiak sensibilizatzea (Guraso Elkartearen bidez, e-mailez, hitzaldiak antolatuz...)

Helburu horiekin, jarduera hauek egin dituzte:

- Hasiera-ekitaldia: Aste Osasuntsuari buruzko publizitatea jarri zuten egunkarietan, herriko erakunde batzuen Facebook-en eta herriko telebistan. Osasuneitor pertsonaia egon zen bertan.

- Hamaiketako Haur Hezkuntzan: Guraso Elkarteko kide boluntarioen artean banatu zuten, hiru egunetan ogia eta bi egunetan fruta. Gelan sartzetako hamaiketako Osasuneitorren izenean ze-

torrela esaten zuten eta umeak oso pozik geratzen ziren.

- Hamaiketako Lehen Hezkuntzan: familia eta ume guztiei zerbeit osasuntsua eskolara eramateko eskaera egin zieten, horretarako proposamen batzuekin. Irakasleak arduratu ziren jolasorduan zenbat aldaketa ikusten zituzten jakinarazteaz.

"HAMAIKETAKO OHITURAK HOBETU NAHI DIRA"

CAS

Con el objetivo de mejorar la alimentación del alumnado de la escuela Allende Salazar de Gernika, pusieron en marcha un proyecto denominado "Alimentación sana en nuestra escuela". Decidieron dar pasos en este sentido a través de la comisión de comedor, con una planificación clara para avanzar paso a paso.

Estos son los objetivos del proyecto: mejorar la situación del comedor (conociendo y mejorando el funcionamiento interno y haciendo uso de las fuentes de información de sus aliados), mejorar las costumbres del "hamaiketako" en infantil y primaria, sensibilizar a las familias en esta temática (a través de la AMPA, por e-mail, organizando charlas...)

Con estos objetivos, han realizado estas actividades:

- Acto inicial: colocaron publicidad sobre la Semana Sana en los periódicos, en los perfiles de Facebook de organizaciones locales y en la televisión local. Contaron con la participación de Osasuneitor.



•"Hamaiketako" en Infantil: voluntarias y voluntarios de la AMPA repartieron pan durante tres días y fruta durante dos entre el alumnado. Al entrar en clase informaban de que la comida llegaba de la mano de Osasuneitor, algo que alegraba al alumnado.

•"Hamaiketako" en Primaria: se pidió a todas las familias y al alumnado que llevaran algo sano a clase, con varias propuestas. El profesorado se encargó de analizar los cambios en el patio.

Irakurri esperientzia hau osorik zure mugikor edo tablet-ean. Lee esta experiencia en su totalidad en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: gurasoelkarteak@gmail.com
Web: allendesalazar.ikastetxea.net

Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko / Para leer ésta y más experiencias en su totalidad www.ehige.org/praktikaonak



ACCESITA/ ACCESIT

“Elurretara”

Mungia BHiko Guraso Elkarte
(Mungia BHI)

Duela urte batzuk jarri zuen martxan egitasmo hau. Eskiatzera joatea garestia zela eta astebeteko irteerak antolatzen zirela ikusirik, ikasle guztientzako egitasmoa bat antolatu zuten: egun bakarreko irteera Valdezaray-ra ihauteri asteko asteazkenean. Helburu konkretu bat du egitasmo honek: IGE eta ikaslegoaren arteko harremanetan zubi iraunkorrak izatea.

“EGUN BATEKO IRTEERA EGITEN DA IHAUTERI ASTEKO ASTEAZKENEAN”

Prozesu guztia IGEaren web gunearen bidez egiten da. Bertan kartelak, informazio praktikoa, ordainketa egiteko modua eta abar agertzen dira. Web gunearen bidez egin behar da ere izen-ematea, egin nahi den kirola aukeratuz, materiala eta kaskoa alokatu nahi diren adieraziz. Izen-ematea amaitu eta gero dokumentazioa banatzen da eta baimenak jasotzen dira bi egunetan zehar.

Esperientzia honen bidez IGEen bileretara joaten ez diren gurasoak erakartzea lortzen dute. Izan ere eski edo snowarekin esperientziadun gurasoak lagungarri dira, baita ikasle ohiak ere.

Beste ikastetxe batzuk esperientzia berdina egitera animatzen dituzte arrazoi hauengatik:

- DBH 1.mailako ikasleentzak oso esperientzia polita izaten da, normalean ez dakitelako eskiatzen ezta snow egiten.
- Ikaslego eta gurasoen arteko adiskidetasun giroak elkarbizitza jarduera bilakatzeko du benetan. Elurrak, kirolak..., antzeko gustuak partekatzeak batxilergoko ikaslegoarekin konplizitate osasuntsua sortzen du.
- Ikaslegoak dinamika ikasita dauka eta protokoloek bat-batekotasunari ezer ez uzten laguntzen diote, horrela planifikatutako jardunaldia izaten da.

CAS

El objetivo de esta experiencia ha sido poner en marcha un proyecto basado en el interés del alumnado. Teniendo en cuenta que es caro ir a esquiar y que la mayoría de las salidas duran toda una semana decidieron organizar una salida de un día a Valdezaray el miércoles de Semana Santa. El objetivo principal de esta salida ha sido contar con una línea de comunicación directa entre el alumnado y la AMPA.

Así, todo el proceso se realiza a través del sitio web de la AMPA, donde se encuentran los carteles, la información práctica, la forma de pago etc. También es necesario realizar a través de la web la inscripción, la elección del deporte que se quiere realizar y si se quiere alquilar o no el casco. Una vez realizada la inscripción se dan dos días de plazo para repartir la información y recoger los permisos. Gracias a esta experiencia



consiguen atraer a la AMPA a padres y madres que no acuden a las reuniones. Y es que se necesita contar con padres/madres con experiencia en el ski o el snow, así como ex-alumnos. También es importante contar con padres y madres euskaldunes, para fomentar el uso del euskera fuera del horario escolar.

Animan a otros centros a realizar la misma experiencia por las siguientes razones:

- *Es una actividad muy atractiva para el alumnado de 1º de la ESO, porque habitualmente no saben ni esquiar ni hacer snow.*

- *Convierte el ambiente de amistad entre alumnado y padres y madres en una actividad de convivencia. Compartir el gusto*

por la nieve, el deporte...con el alumnado de bachillerato consigue un ambiente de complicidad muy sano.

- *El alumnado ya conoce la dinámica y los protocolos permiten que no se deje nada a la improvisación, así, se convierte en una actividad planificada.*

Irakurri
esperientzia hau
osorik zure mugikor
edo tablet-ean.
Lee esta experiencia
en su totalidad
en tu móvil o tablet.



Harremana / contacto: ampamungiainstituttoa@gmail.com

Web: sites.google.com/site/ampamungiainstitutua

Esperientzia hau eta beste batzuk osorik irakurtzeko /

Para leer ésta y más experiencias en su totalidad

www.ehige.org/praktikaonak



Pozik gaude Guraso Elkarteen hezkuntza-jarduera onen hirugarren lehiaketaren parte-hartzearekin. Izan ere, berrogehi esperientziatik gora aurkeztu ziren. Saritutako esperientzien laburpenak biltzen ditu argitalpen honek. Jarduera osotasunean eta aurkeztu ziren esperientzia guztiak irakurri nahi badituzu, sar zaitez web gune honetan: www.ehige.org/praktikaonak. Bertan aurkituko dituzu ere lehiaketa honen laugarren edizioaren oinarriak. Animatu eta parte hartu!

La tercera edición del Concurso de buenas prácticas de AMPAs ha sido todo un éxito, ya que se han presentado más de cuarenta experiencias. Encontrarás en esta publicación un resumen de los proyectos premiados y en el sitio web los proyectos completos así como el resto de experiencias. También encontrarás las bases de la 4ª edición del Concurso de buenas prácticas de AMPAs. ¡Anímate y participa!



BABESLEA:



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EDIZIOA: 1. 2013KO AZAROA
ALE-KOPURUA: 1.500
ARGITARATZAILEA: EHIGE
INPRIMATZAILEA: GRAFINORTE
L.G: BI-1627-2013
DISEINUA: //OLATU// XABAT AGIRRE
WWW.EHIGE.ORG/PRAKTIKAONAK

